

59 DONOSTIAKO JAZZALDIA

23-28
UZTAILA
/ JULIO

DONOSTIA / ,
SAN SEBASTIÁN

TXAKURRENTZAKO BALDINTZAK JAZZALDIAN

Txakurren presentzia JAZZALDIAn agertokiak okupatzen duen espazioari dagozkion beharizanez eta araudi propioak baldintzatzen dute. Espazio horietako batzuk publikoak dira (hau da, Donostiako Udaleko "Animaliak babestu eta edukitzeko udal ordenantza" aplikatu behar zaie) eta beste batzuk pribatuak (non bete beharreko hainbat okupazio- eta bizikidetzara arau indarrean dauden):

- **Esparru pribatuetako agertokiak:** Txakurren presentzia galarazita dago erabilera anitzeko areto kultural eta esparru pribatuetan, laguntza txakurren kasuan izan ezik, (Gida txakurrak; alerta medikokoak; gorren, autisten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza-txakurrak, etab.) ahalmen urriko pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 LEGEAREN arabera. Beraz, oro har, txakur arrunten presentzia ez da ametituko hurrengo hauetan:

- Kursaal Auditorioa (itsuaurreko txakurrarekin joateko, berariazko sarrera erosi beharko da "mugikortasun urriko pertsonentzat - 17. ilara").
- Victoria Eugenia Antzokia
- San Telmo Museoa
- Kutxa Kultur Tabakalera

- **Agertoki itxi eta arautua:** Espazio itxi arautuetan esparru kultural pribatuetako araudi berbera aplikatuko da, hau da, berorien barruan ez da onartuko txakurrik (laguntza-txakurrak salbuetsita):

- Trinitate Plaza

- **Hiriko bide publikoan dauden aire libreko agertokiak:** Udal araudiaren arabera, txakurren presentzia baimenduta dago. JAZZALDIAn kasuan, animalia presentzia, kontzertuetan, higie-, osasun- eta bizikidetzara arauen mende egongo da (alegia, egoten utziko zaie baldin eta beren jokabideak ez badu ekitaldiaren garapen normala eragozten). Animalia lotuta eraman beharko da, eta ezingo du gorotzik ez gernerik egin ekitaldi garatzen den esparruan:

- Kursaleko Terrazak

JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 900 prensajazz@donostia.eus
www.jazzaldia.eus